



sean sands. bobby sands-en anaia

bobby sands-en anaiarekin hizketa: sean sands

Bilbon, antinuklear jardunaldietan ezagutu genuen. Ifar alde-tik nor eta Bobby Sandsen anaia, Sean Sands. Tipó mehe, luzea, kostata atera genuen aurrera berarekin elkarrizketa, inglesa, euskara eta gaztelera erabili behar izan genituen eta. Agian ez du ezer berririk, ezjakinik, esango baina merezi du entzuteak.

ARGIA.- Ez da lehen aldia, ez eta azkena izango ere, Irlandar presoak gose greban jarduntzea, baina ez genuen uste erabakia hain gogorra izango zenik. Zein atera bide ikusten diok egoera honi?

Sean Sands.- Bueno hasteko esan beharra dago presoek dar-maten borroka orain 5 urte hasi zela. 76an gobernu britanikoak

ordurarte onartua zegoen preso-en estatuto politikoa ukatzearekin batera hasi zuen hauen kontrako jokoa. Ordutik hona presoekin-tza piloa ikusi ahal izan dugu estatutoa berreskuratzeko: garbiketa greba, jantziarena etab. Gobernu britanikoaren erantzuna beti bera izan da: indarkeria areagotu eta presoak geroz eta egoera latza-



goan mantendu. Hortaz ez da baxterez harritzekoa hauen erreakzioa hain gogorra gertatzea.

ARGIA.- Hain garrantzizkoa al da ba preso politikoaren estatutua?

Sean Sands.- Estatutoarenak bi alde ditu: bata, arrazoin politikoengatik atxilotu dituztela, borroka irlandar zati baten askatasunagatik delako, eta bestetik estatutoak dituen abantailengatik. Egun 450 preso ari dituk borroka honetan jo eta ke, haietatik gose greban 7. Beste 400ek berriz badute estatutoa, 1976 aurretik atxilotuak izan zirelako.

ARGIA.- Nola daiteke gobernuak batzuztatzen estatutoa onartzea eta besteentzat ez?

Sean Sands.- Ba ordurarte, 76 arte ez omen zekien irlandar borrokalariak zer ziren baino aurretik terrorizatzen jotzea erabaki zuten. Esan beharrik ez honek suposatzen duena, hemen, Euskal Herrian horretaz guk aina dakizue eta.

Presoen auziak, arazoak, borrokak etab. beti kanpoko jendearen laguntza eskatzen du. Terroristak direnez kalean haien alde borrokatzen direnei ere tratamendu bera eman behar zaielakoan dago gobernu britanikoa. Pentsa gose gre-

ba hasi zenetik 15 gazte gertatu dela hilik borrokaren ondorioz. Konpara ezak Ingalaterran uda hasieran izan ziren istiluekin. Inor hilik ez gertatzea zen hor poliziarren buruhausterik handiena, Ifar Irlandan berriz...

ARGIA.- Hortaz gobernu britanikoaren indarkeri jarrera ez da presoenganako bakarrik, arlo guztietara zabaldu nahi al du?

Sean Sands.- Zabaldu bakarrik ez, ekintza probokatzailak eta guzti eragiten ditu jendea astintzeko. Patsi O'hara, hildako laugarren gose grebalaria, hil ondoren soldaduek sudurra hautsi zioten kolpeka, baita arpegia erre zigarroak bertan itzaliz. Jakin orduko noski, jendea sutan jarri huen eta errepresioa ere gogortu.

Gero ere presoak toreatzen ari dituk. Gabona aurretik negoziaketetan hasi hituen eta gobernuak zenbait promesa eskaini. Ez zian bat ere bete, bainan onduntze hastekotan zegoen gose greba gelditzea lortu zian.

ARGIA.- Ez al dago negoziaketatik ba?

Sean Sands.- Ez ba, britanikoen esku dago tratutan hastea, Maze-ko kartzelara ordezkariaren bat edo beste bidaltzea, bainan ez dituk egin nahi. Bazekiten, greba hasi orduko, ez zela txantxetan hartzekoa, presoak hiltzeraino jardungo zirela. Aterabide bakarra eskaintakoa betetzean dago.


Gaurdaino gobernuak ez du inor hiltzen utzi izan. Beti nolabaiteko konponketetara ailegatu izan dira. Orain berriz Bobby hil orduetik beste guztiontzat heriotzearen ateak zabalik geratu dira. Honek aldaketa kualitatibo handia suposatu du gobernu britanikoaren politikan. Indarkeri edo gogorkeri bide hau Ingalaterra bertan somatzen hasiak dituk, paroaren arzoan, Teatcherek daraman politika ekonomikoan etab. Eta ez diat uste kasualitatea denik.

ARGIA.- Bazirudik, kanpotik behintzat, gose grebak, frakasoak ez bada ere ez duela bere helburua lortuko, ez zaretela gai izango gobernuak makurrarazteko. Zer ondorio baliagarri espero daitezke gerorako?

Sean Sands.- Nik ez nikek esango greba frakasoak izan denik. Hildakoak ezin dizkiagu berpiztu, bainan hauen heriotzeak kristoren eragina izan du gure artean. Batek herri barneko batasuna sendotu duelako. Inoiz baino jende gehiago dabil grebaren inguruan lan eta lan. Eta batasuna eta borrokan aritze hau ez duk grebarekin batera bukatuko. Irlandar erakunde abertzaleentzat ere bultzada handia suposatuko du honek. 800 urtez britanikoen aurka jardun den herri batek tankerako «frakaso» jasan bide du. Igual betiko leloa duk baino hildako bakoitzak beste ehun bultzatu ditu bide horretatik. Eta ondorioak beti luzarora agertzen dituk garbi. Bestetik gobernu britanikoaren jokaera argi ikusi dugu. Ez du ezertan ere etsi nahi. Hortaz bakoitzak atera ditzala bere konklusioak.

ARGIA.- Ba al dago ba hizketa eta berbaren aldekorik zuen artean?

Sean Sands.- Hor diagu SDP laborista den partidua. Pazifistak beraiek diotenez, beti negoziaketa eta paktuen aldekoak agertu izan dira. Oraingo honetan ez dute gauza haundirik egin, presoei greba uzteko esatea baino. Hemen prolema duk ez dagoela ezer paktatzerik.



ARGIA.- Presoen aldeko borrokan jende multzoa dabilela eta, indar guzti hau ez al da nonbaiten jasotzen, indar politikoez gain ez al da erakunderik ekintza guztiak jaso eta bideratzen dituen?

Sean Sands.- Lehen protestak hasi zirenetik, mantarena, garbitasunarena eta, Ifar eta Hegoaldean sortzen hasi ziren Bloke Haren herri batzordeak. Bakoitzak bere lehendakari-ordezkarria du Bloke Haren Nazional Batzordera joaten dena. Azken honetan zentralizatzen da informazioa, propaganda etab. Gero herri batzorde bakoitzak antolatzen ditu bere ekintza eta eginbeharrak herri mailan nahiz nazionalen: Belfasten manifestapena dagoela antolatua, ba leku bakoitzean autobusak antolatu etab. Gero presoen senideek antolatua dute Senideen Batzordea, beren egoera bereziak sortzen dizkien arazoak konpontzeko. Azkenik, orain sortu berria den Gose Grebaren Batzordea, besteekin kordinatua dago baino greba honetarako sortu zen bereziki.

ARGIA.- Hego Irlandan ere batzorde hauek sortu zirela esan duk. Laguntza asko jasotzen al da hegoaldeetik?

Sean Sands.- Jende aldetik bai. Jarrera ona du Iparraldeko borroka hegoaldekoengan. Han oztopo handienak beti gobernuko jendeak jartzen ditu. Republika sortu zenean, 1917an, borrokan kasik parte hartu ez zuen jendeak eskuratu zuen gobernu. Orduetik gobernu britanikoaren arauera jokatu dute beti, ekonomi gaietan haien menpe daude eta. Alde horretatik ez diagu ezer espero, nahiago bait dute egungo egoera mantendu, 26 kondadorekin 32ren Irlanda baino. IRA hortaz atzoko borroka jaso eta Irlandaren askatasun osoa lortu arte jardungo da. Eta esan behar hegoaldeko gobernu irlandarrak IRA galerazia duela:

ARGIA.- Hortaz, britanikoen laguntzaile dexente zeukea lurralde haietan, batetik irlandar gobernu, bestetik iparraldeko soldadu eta protestanteak. Azken hauek zein

aterabide ikus dezakete arazo honetan?

Sean Sands.- Irlandar abertzaleak eskaintzen dugun aterabidea guztioi zabaltzen zaie bai katoliko bai protestanteei. Ez da erlijioa batak eta besteak zatikatzen gaituena, bakoitzak politika britanikoarekiko duen jarrerak baizik. Horretan gobernu britanikoak etengabe erabiltzen du bonbardeo ideologikoa, beharrezkoa bait du bi komunitate erlijiosoen arteko gerra itxura mantendu. Bainan guk ifarraldeko jendea irlandartzat jotzen dugu, beraz Irlanda bateratuaren proiektuan ez da inor baztertua utziko.

ARGIA.- Ez al duzue han nuklearrekin arazorik?

Sean Sands.- Oraingoz ez zaio inori horrelakorik burutu. Uranioa ba omen dago hegoaldeko kondadu batetan eta britanikoen minak eraiki nahi omen dituzte baino orain arte ez dituk ezertan hasi.

